EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

HEZKUNTZA BATZORDEA
COMISIÓN DE EDUCACIÓN

## HEZKUNTZA BATZORDEA

Aditzera ematen dizut aldaketa bat izan dela Hezkuntza Batzordea martxoaren 24an 09:30etan egitekoa den bilkuran: bilkurak ondoko gaia ere izango du 3 bis puntu modura:

3 bis Lizarbe Eskola Txikia Sortzearen Aldeko Guraso Elkartearen agerraldia, elkarte horrek egindako eskaerarekin bat etorri eta batzordeak eskaturik, azalpenak emateko Debako Itziar auzoko eskolaren errealitateari buruz. [09\10\06\03\0186]

Eusko Legebiltzarra, 2010eko martxoaren 17a

## COMISIÓN DE EDUCACIÓN

Pongo en su conocimiento que la sesión de la Comisión de Educación prevista celebrar el día 24 de marzo, a las 09:30, incluirá como punto 3 bis el siguiente asunto:

3 bis Comparecencia de asociación Lizarbe Eskola Txikia Sortzearen Aldeko Guraso Elkartea, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por dicha asociación, para explicar la realidad de la escuela de Itziar (Deba). [09\10\06\03\0186]

Parlamento Vasco, 17 de marzo de 2010

**Eduardo Mancisidor Artaraz**
**Legelaria / Letrado**

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamento.euskadi.net

## HEZKUNTZA BATZORDEA

Honen bidez dei egiten zaizu Hezkuntza Batzordearen bilkurara. Bilkura martxoaren 24an (asteazkena) izango da, 09:30ean, Eusko Legebiltzarreko 3. aretoan. Hauxe izango da

### GAI ZERRENDA

1. 2010eko martxoaren 3an eta 5ean egindako bilkuren aktak irakurri eta, hala badagokio, onestea.

2. Kristau Eskola Elkartearen agerraldia, haren eskaerarekin bat etorriz eta batzordeak eskaturik, azaltzeko elkarteak zer iritzi duen 2010-2011 ikasturterako aurrematrikula-denboran ordezkari politiko batzuen aldetik jasan duen erabilerari buruz, eta argitzeko zein den elkartean bildutako ikastetxeen hezkuntza-proiektua eta hizkuntza-planteamendua. [09\10\06\03\0164]

3. Larraulgo alkatearen eta Larraulgo Guraso Elkartearen agerraldia, haren eskaerarekin bat etorriz eta batzordeak eskaturik, azaltzeko zer-nolakoa den Larraulgo eskolaren errealitatea. [09\10\06\03\0165]

4. Mistoa-EA legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, Hezkuntza Sailaren kalitate-programei buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0196]

5. Mistoa-EB legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, espezialitate berriak eskuratu ahal izateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdi bat egiteari buruz. Proposamenaren eta

## COMISIÓN DE EDUCACIÓN

Pongo en su conocimiento que la Comisión de Educación ha sido convocada para el día 24 de marzo, miércoles, a las 09:30, en la sede del Parlamento Vasco (sala 3), con arreglo al siguiente

### ORDEN DEL DÍA

1. Lectura y aprobación, en su caso, de las actas de las sesiones celebradas los días 3 y 5 de marzo de 2010.

2. Comparecencia de la Asociación Kristau Eskola, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por dicha asociación, para exponer el posicionamiento de la asociación sobre la utilización de que ha sido objeto por parte de algunos representantes políticos durante el período de prematrícula para el curso 2010-2011, así como explicar el proyecto educativo y el planteamiento lingüístico de los centros que agrupa la asociación. [09\10\06\03\0164]

3. Comparecencia del alcalde de Larraul y de la Asociación de Padres y Madres de Larraul, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por dichos comparecientes, para exponer la realidad de la escuela de Larraul. [09\10\06\03\0165].

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-EA, sobre los programas de calidad del Departamento de Educación, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0196]

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-EB, referente a convocatoria por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación

aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0224]

para adquisición de nuevas especialidades, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0224]

6. Euskal Legebiltzar Talde Popularrak aurkeztutako legez besteko proposamena, Barakaldoko Arteagabeitia ikastetxe publikoan eskola-jantokia handitzeko obren atzerapenari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketaren eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0229]

6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la demora en las obras de ampliación del comedor escolar en el colegio público Arteagabeitia, en Barakaldo, y de la enmienda presentada. [09\11\02\01\0229]

7. Mistoa-EA legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, Gernikan Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitzeari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida halakorik balego, eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0251]

7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-EA, relativa a la construcción de un centro unificado de Formación Profesional en Gernika, y de las enmiendas presentadas, si hubiere. [09\11\02\01\0251]

8. Eskariak eta galderak.

8. Ruegos y preguntas.

Eusko Legebiltzarra, 2010eko martxoaren 1a

Parlamento Vasco, 1 de marzo de 2010

**Eduardo Mancisidor Artaraz**
**Legelaria / Letrado**

***Hezkuntza Sailaren kalitate-programei buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0196)

Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 7ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Jesus M. Larrazabal Antia Mistoa-Eusko Alkartasuna Taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduari jarraiki, honako legez besteko proposamen hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko, Hezkuntza Sailaren kalitate-programei buruz.

Zioa:

Ikastetxeen kalitate-programak finantzatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak orain arte eman ohi dituen diru-laguntzei buruzko informazioa eskatu zuen legebiltzar-talde honek azaroan; galdera horren harira Isabel Celaa sailburuak berak idatziz bidalitako erantzunaren arabera, Hezkuntza Sailak pasa den legealdian Hezkuntza Berriztapeneko Zuzendaritzak onartutako 2007-2010eko lehentasunezko ildoak aztertzeko, gaurkotzeko eta berritzeko prozesu bati ekin dio eta kalitate-programentzako diru-laguntzak marko orokor horren barruan kokatzen ditu.

Legebiltzar honek, ordea, ez du inongo informaziorik jaso prozesu horren garapenaren inguruan, ez eta bere emaitzei buruz ere.

Hori dela eta, honako legez besteko proposamen hau aurkezten da, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko, Hezkuntza Sailaren kalitate-programei buruz:

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio:

1. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak onartutako 2007-2010eko lehentasunezko ildoen aztertze-prozesuaren emaitzak jaso behar dituen txostena Ganbera honetara 2010eko apirilaren

***Sobre los programas de calidad del Departamento de Educación*** (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0196)

La Mesa, en su reunión del día 7 de enero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Educación, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Jesus M. Larrazabal Antia, parlamentario del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley, para su debate en pleno, sobre los programas de calidad del Departamento de Educación.

Justificación:

En noviembre, nuestro grupo parlamentario solicitó información sobre las subvenciones que hasta ahora ha venido concediendo el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para la financiación de programas de calidad de los centros escolares; según la respuesta escrita que la propia consejera, D.ª Isabel Celaa, remitió a la pregunta formulada, el Departamento de Educación, en la legislatura anterior, emprendió un proceso de análisis, actualización y renovación de las líneas prioritarias aprobadas por la Dirección de Innovación Educativa para el período 2007-2010, y sitúa las subvenciones para programas de calidad dentro de tal marco general.

Este Parlamento, sin embargo, no ha recibido información alguna sobre el desarrollo de dicho proceso, ni sobre sus resultados.

Por ello, se formula la siguiente proposición no de ley, sobre los programas de calidad del Departamento de Educación, para su debate en la Comisión de Educación:

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

1. A que remita a esta Cámara, antes del 1 de abril de 2010, el informe que recoja los resultados del proceso de análisis de las líneas prioritarias para el período 2007-2010, aprobadas

1a baino lehen bidal dezala.

2. Txosten hori oinarritzat hartu eta kalitate-programak Ganbera honetan ekainaren 30a baino lehen aurkez ditzala.

Gasteizen, 2009ko abenduaren 29an

**Jesus M. Larrazabal Antia, Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko bozeramailea**

***

por la Dirección de Innovación Educativa.

2. A que, sobre la base de dicho informe, presente en esta Cámara los programas de calidad antes del 30 de junio.

En Vitoria, a 29 de diciembre de 2009

**Jesus M. Larrazabal Antia, portavoz del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna**

***

*Sobre los programas de calidad del Departamento de Educación* (Enmiendas)
(09/11.02.01.0196)

La Mesa, en su reunión del día 16 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, y ordena su remisión a la Comisión de Educación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco a adoptar las medidas necesarias para mejorar la calidad de nuestro sistema educativo, revisando y actualizando los programas de calidad actualmente en marcha para adecuarlos a las nuevas necesidades de los centros escolares".

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a presentar, en el plazo de seis meses, las estrategias necesarias para impulsar la calidad de los centros educativos".

***

*Hezkuntza Sailaren kalitate-programei buruz* (Zuzenketak)
(09/11.02.01.0196)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 16ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Hezkuntza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

**EUSKAL LEGEBILTZAR TALDE POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio gure hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko behar diren neurriak hartu ditzala eta, horretarako, martxan dauden kalitate-programak aztertu eta gaurkotu ditzala, ikastetxeen oraingo beharrei egokitze aldera".

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio ikastetxeen kalitatea bultzatzeko behar diren estrategiak aurkezteko, sei hilabeteko epean".

***

***Referente a convocatoria por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para adquisición de nuevas especialidades*** (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0224)

La Mesa, en su reunión del día 2 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Educación, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Mikel Arana, portavoz del grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, a tenor de lo establecido en el Reglamento de la Cámara actualmente en vigor, tienen el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno, referente a adquisición de nuevas especialidades.

Justificación:

La educación va progresivamente orientándose hacia un saber más integrado representado por la consecución de las competencias. El trabajo por competencias implica la transversalidad de materias y el trabajo con contenidos metadisciplinares, de manera que la actual fragmentación curricular por asignaturas debe abrir paso a otra manera de funcionar más polivalente y flexible por parte del profesorado.

Estos cambios deben venir facilitados por las administraciones educativas, a fin de que estructuras y formas de funcionar que van quedando obsoletas puedan ir acomodándose mejor a las nuevas necesidades educativas de nuestra sociedad.

El Real Decreto 276/2007, por el que se aprueba el Reglamento de ingreso, accesos y adquisición de nuevas especialidades en los cuerpos docentes, en su título V abre una puerta para dotar de mayor flexibilidad al sistema funcionarial en el caso del Cuerpo de Profesores y Profesoras de Secundaria y de otros cuerpos relacionados con la Formación Profesional y las enseñanzas de idiomas y artísticas, al determinar el procedimiento para la adquisición de nuevas especialidades, dejando a las administraciones autonómicas la convocatoria de las pruebas, así como la potestad sobre la duración y las características de las mismas.

***Espezialitate berriak eskuratu ahal izateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdi bat egiteari buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0224)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 2ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Arana Mistoa-Ezker Batua Berdeak taldeko bozeramaileak, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondoko legez besteko proposamena egiten du, osoko bilkuran eztabaidatu dadin, espezialitate berriak eskuratu ahal izateari buruz.

Arrazoiak:

Hezkuntza, arian arian, konpetentziak gauzatzean oinarritzen den jakintza osoago baterantz abiatzen ari da. Konpetentzietan oinarrituz lan egiteak esan nahi du ikasgaiak zeharkakoak direla eta eduki metadiziplinarrak lantzen direla. Horrela, kurrikuluak gaur egun duen ikasgaien araberako zatiketa atzean utzi eta funtzionatzeko modu balioaniztun eta malguago baterako jauzia eman behar da.

Aldaketok hezkuntza-administrazioek erraztu behar dituzte, zaharkitzen ari diren egitura eta jarduteko modu horiek gure gizarteak dituen hezkuntza-beharrizan berrietara hobeto egokitzen joan ahal izan dezaten.

276/2007 Errege Dekretuak, irakasleen kidegoetan onartzeko, sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua arautzen duena, bere V. tituluan funtzionarioen sistemari malgutasun handiagoa emateko bidea zabaltzen du, bai Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kasuan bai Lanbide Heziketako eta hizkuntz eta arteetako irakasleen kasuan. Izan ere, Dekretuak espezialitate berriak eskuratzeko prozedura zehaztu egiten du, eta administrazio autonomikoen esku uzten du probak deitzeko ardura, bai eta proben iraupena eta ezaugarriak zehazteko ahalmena ere.

Resultando que, pasados casi tres años, la Administración vasca no ha habilitado todavía ningún proceso que permita la adquisición de nuevas especialidades se realiza la siguiente

PROPOSICIÓN NO DE LEY

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a que en el plazo no superior a un año realice una convocatoria para la adquisición de nuevas especialidades para los funcionarios de los Cuerpos de Catedráticos y Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación profesional, Catedráticos y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas, Catedráticos y Profesores de Música y Artes Plásticas y Diseño y Maestros de Taller de Artes Plásticas".

Vitoria-Gasteiz, 26 de enero de 2010

**Mikel Arana Etxezarreta, portavoz del grupo Mixto-Ezker Batua Berdeak**

***

Dagoeneko ia hiru urte igaro dira Dekretua onartu zenetik, eta euskal Administrazioak oraindik ez du bideratu espezialitate berriak eskuratzea ahalbidetzen duen prozesurik. Hori dela eta, ondoko Legez Besteko Proposamena egiten da:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio, gehienez urtebeteko epean, espezialitate berriak eskuratzeko deialdi bat egin dezala, ondoko kidego hauetako funtzionarioentzat: Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun eta irakasleak, musika, arte plastiko eta diseinuko katedradunak eta irakasleak, eta lantegiko eta arte plastikoetako maisuak".

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 26a

**Mikel Arana Etxezarreta, Mistoa-Ezker Batua Berdeak taldeko bozeramailea**

***

***Referente a convocatoria por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para adquisición de nuevas especialidades*** (Enmiendas) (09/11.02.01.0224)

La Mesa, en su reunión del día 23 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, y ordena su remisión a la Comisión de Educación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a que en las sucesivas Ofertas Públicas de Empleo tome como referencia las especialidades convocadas en las mismas y establezca los mecanismos necesarios que faciliten la adquisición de nuevas especialidades por parte de los funcionarios de los Cuerpos de Catedráticos y Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional, Catedráticos y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas, Catedráticos y Profesores de Música y Artes Plásticas y Diseño y Maestros de Taller de Artes Plásticas".

**EUZKO ABERTZALEAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**GEHITZEKO ZUZENKETA**

2. 276/2007 Errege Dekretuak, irakasleen kidegoetan onartzeko, sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua arautzen duenak, 16.artikuluan aurreikusten duenari bereziki begiratuko dio deialdi horrek. Eta beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio ezar ditzala, deialdi horretan, euskararen ezagutza egiaztatzeko behar diren prozedura egokiak.

***

***Espezialitate berriak eskuratu ahal izateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdi bat egiteari buruz*** (Zuzenketak) (09/11.02.01.0224)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 23ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu Hezkuntza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio, aurrerantzean egingo dituen lan-eskaintza publikoetan, erreferentziatzat har ditzala deialdietako espezialitateak eta beharrezko mekanismoak ezar ditzala espezialitate berriak eskuratzeko erraztasunak emateko ondoko kidego hauetako funtzionarioei: Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun eta irakasleak, musika, arte plastiko eta diseinuko katedradunak eta irakasleak, eta lantegiko eta arte plastikoetako maisuak".

**GRUPO PARLAMENTARIO NACIONALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE ADICIÓN**

2. Dicha convocatoria atenderá especialmente a lo que prevé en su artículo 16 el Real Decreto 276/2007, por el que se aprueba el Reglamento de ingreso, accesos y adquisición de nuevas especialidades. Y por tanto, insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a establecer, en dicha convocatoria, los procedimientos adecuados necesarios para verificar el conocimiento del euskera.

***

***Relativa a la demora en las obras de ampliación del comedor escolar en el colegio público Arteagabeitia, en Barakaldo*** (Admisión a trámite) (09/11.02.01.0229)

La Mesa, en su reunión del día 2 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Educación, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Esther Martínez Fernández, Parlamentaria del Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, al amparo del vigente Reglamento tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley urgente, para su debate en Pleno relativa a la demora en las obras de ampliación del comedor escolar en el Colegio Público de Arteagabeitia, en Barakaldo.

Justificación:

La Delegación de Educación en Vizcaya ha adoptado la decisión de suspender el inicio de las obras en el comedor escolar del Colegio Público Arteagabeitia.

Esta decisión viene a sumarse a las dilaciones ya acumuladas desde hace varios cursos, como consecuencia de la gestión realizada por los anteriores responsables del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

La necesidad de estas obras es evidente teniendo en cuenta el incremento continuado del alumnado en este centro escolar; de hecho se han tomado en este colegio medidas excepcionales ya, durante el presente curso escolar, para poder atender el total de la demanda existente y no dejar sin servicio de comedor a una buena parte de los alumnos.

Entendemos no se debe demorar más en el tiempo una obra que fue proyectada e incluso presupuestada en ejercicios anteriores y que la solución no puede pasar por dejar de ofertar el servicio de comedor ni a los alumnos que pudieran incorporarse en los próximos años, ni a los alumnos que vienen haciendo uso del mismo en estos momentos.

Por lo expuesto, el Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra presenta para su aprobación la si-

***Barakaldoko Arteagabeitia ikastetxe publikoan eskola-jantokia handitzeko obren atzerapenari buruz*** (Tramitatzeko onartzea) (09/11.02.01.0229)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 2ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Esther Martínez Fernández Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkezten du, Barakaldoko Arteagabeitia ikastetxe publikoan eskola-jantokia handitzeko obren atzerapenari buruz, osoko bilkuran presako prozeduraz eztabaidatzeko.

Arrazoiak:

Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak erabaki du bertan behera uztea Arteagabeitia ikastetxe publikoaren eskola-jantokiko obren hasiera.

Erabaki hau lotzen zaio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko aurreko arduradunen kudeaketaren ondorioz hainbat ikasturtetan pilatutako atzerapenari.

Obra hauen beharra nabaria da, kontuan hartuta ikastetxe honetako ikasle-kopuruaren etengabeko gorakada: izan ere, ikastetxe honetan ohiz kanpoko neurriak hartu dira dagoeneko, ikastaro honetan, eskaera guztiei erantzuna eman ahal izateko, jantokiko zerbitzurik gabe ez uzteko ikasleen kopuru handi bat.

Gure ustetan, ezin da gehiago atzeratu aurreko ekitaldietan proiektatu eta aurrekontuetan sartutako obra hori, eta irtenbidea ezin daiteke izan jantoki-zerbitzurik gabe uztea hurrengo urteetan zerbitzua erabil dezaketen ikasleak eta ezta gaur egun jantokia erabiltzen dutenak ere.

Adierazitako guztiagatik, Euskal Talde Popularrak honako legez besteko proposamen hau aurkezten

guiente proposición no de ley:

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a ejecutar con carácter inmediato las obras de ampliación del comedor en el colegio público Arteagabeitia, de manera que se preste un servicio ajustado a la demanda creciente que presenta el centro".

Justificación de la urgencia:

La necesidad de realizar una correcta planificación del servicio de comedor, teniendo en cuenta que el próximo martes se abre el periodo de prematriculaciones para el Curso Escolar 2010-2011.

En Bilbao, a 29 de enero de 2010

**Esther Martínez Fernández, parlamentaria del grupo Popular Vasco. Leopoldo Barreda de los Ríos, portavoz**

***

du, onetsia izan dadin:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berehala egin ditzala Barakaldoko Arteagabeitia ikastetxe publikoan eskola-jantokia handitzeko obrak, ikastetxean geroz eta handiagoa den eskaerari egokitutako zerbitzua eman ahal izateko".

Presaren arrazoia:

Jantoki-zerbitzuaren plangintza egokia egin beharra, kontuan hartuta hurrengo asteartean 2010-2011 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea irekiko dela.

Bilbon, 2010eko urtarrilaren 29an

**Esther Martínez Fernández, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Leopoldo Barreda de los Ríos, bozeramailea**

***

***Relativa a la demora en las obras de ampliación del comedor escolar en el colegio público Arteagabeitia, en Barakaldo*** (Enmienda)
(09/11.02.01.0229)

La Mesa, en su reunión del día 23 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión a la Comisión de Educación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a iniciar ya en este ejercicio las obras correspondientes a la 'Supresión de barreras y ampliación del comedor' en el CEP Arteagabeitia LHI de Barakaldo".

***

***Barakaldoko Arteagabeitia ikastetxe publikoan eskola-jantokia handitzeko obren atzerapenari buruz*** (Zuzenketa)
(09/11.02.01.0229)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 23ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Euskal Legebiltzar Talde Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Hezkuntza Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekitaldi honetan bertan hasi ditzala 'Barakaldoko LHI Arteagabeitia CEP ikastetxean hesiak kentzeko eta eskola-jantokia handitzeko' egin beharreko obrak".

***

***Gernikan Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitzeari buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0251)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 23ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Jesus M. Larrazabal Antia Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduari jarraituz, honako legez besteko proposamen hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Gernikan Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitzeari buruz.

Zioa:

Gernika-Lumoko Udalak Astra enpresa dagoen lurzoruaren erosketa finantzatzeko 3,5 milioi euroko mailegua onartzea erabaki zuen 2008ko uztailaren 16an. Gero, 2009ko urtarrilaren 21ean, hain zuzen ere, lurzoru hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari doan lagatzea erabaki zuen, Gernika-Lumoko Lanbide Heziketako ikastegi bateratua bertan kokatzeko. Izan ere, Urdaibaiko eskualdea ekonomikoki berpiztu beharra aintzat hartuta, Gernika-Lumoko Udalak eta Hezkuntza Sailak indarrak batu eta Lanbide Heziketako ikastegi bateratua eraikitzeko konpromisoa hartu zuten, formakuntza sustatzeak krisiari aurre egiteko sekulako garrantzia duela jabeturik.

Hartutako konpromisoari jarraituz, beraz, Gernika-Lumoko Udalak eginiko lursailaren doako lagatzea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 2009ko apirilaren 27an, eta argi utzi zuen lagatze hori erabilera zehatz baten baldintzapean zegoela, alegia, lurzorua Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzeko erabili behar zela. Jaurlaritzak, gainera, ikastetxeak gehienez lau urteko epean eraikita egon beharko zuela zehaztu zuen, eta horrela ez balitz, finkaren jabetza Gernika-Lumoko Udalari itzuliko zitzaiola.

Lagatzea, baina, ez da oraindik eskritura publi-

***Relativa a la construcción de un centro unificado de Formación Profesional en Gernika*** (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0251)

La Mesa, en su reunión del día 23 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Educación, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Jesus M. Larrazabal Antia, parlamentario del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley, para su debate en pleno, relativa a la construcción de un centro unificado de Formación Profesional en Gernika.

Justificación:

El 16 de julio de 2008, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo acordó la aprobación de un préstamo de 3,5 millones de euros para financiar la compra del suelo en el que se halla la empresa Astra. Posteriormente, el 21 de enero de 2009, decidió ceder gratuitamente dicho suelo al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, a fin de que se construyera en él el centro unificado de Formación Profesional de Gernika-Lumo. De hecho, teniendo en cuenta la necesidad de reanimar económicamente la comarca de Urdaibai, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo y el Departamento de Educación unieron sus fuerzas y se comprometieron a construir dicho centro unificado de Formación Profesional, teniendo en cuenta que el fomento de la formación es de suma importancia para afrontar la actual crisis.

Así pues, de acuerdo con el compromiso asumido, el Gobierno Vasco aceptó el 27 de abril de 2009 la cesión gratuita realizada por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo, y dejó claro que dicha cesión estaba condicionada a un uso concreto; es decir, que el suelo debía utilizarse para construir un centro de Formación Profesional. Además, el Gobierno concretó que el centro tendría que construirse en un plazo máximo de cuatro años, y que, de no ser así, la propiedad de la finca retornaría al Ayuntamiento de Gernika-Lumo.

Sin embargo, la cesión aún no se ha formaliza-

koan modu ofizialean eratu, Jaurlaritzak ez baitu ezinbestekoa den urrats hori eman, eta horrek arriskuan jartzen du Urdaibaiko eskualde osorako hain garrantzitsua den Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitzeko proiektua.

Hori dela eta, honako legez besteko proposamen hau aurkezten da, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Gernikan Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitzeari buruz:

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gernika-Lumoko Udalak EAEko Administrazioaren alde eginiko lursail baten doako lagatzea eskritura publikoan lehenbailehen formalizatzeko Euskadiko Ondareari buruzko Legeak dioenaren arabera, Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua bertan eraiki ahal izateko.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gernika-Lumoko Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitze-proiektua esleitzeko lehiaketa dei dezala eta 2010eko Aurrekontuetan proiektu hori finantzatzeko behar den diruizendapena egin dezala, ikastexea 2013-2014 ikasturterako zabalik egon dadin".

Gasteizen, 2010eko otsailaren 16an

**Jesus M. Larrazabal Antia, Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko bozeramailea**

***

do en escritura pública, ya que el Gobierno no ha dado este paso imprescindible, y ello hace peligrar el proyecto de construcción del centro unificado de Formación Profesional, tan importante para toda la comarca de Urdaibai.

Por todo lo expuesto, se presenta la siguiente proposición no de ley, para su debate en pleno, relativa a la construcción de un centro unificado de Formación Profesional en Gernika:

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, según establece la Ley del Patrimonio de Euskadi, formalice cuanto antes en escritura pública la cesión gratuita de la finca citada, efectuada por el Ayuntamiento de Gernika-Lumo en favor de la Administración de la CAV, a fin de que se pueda construir el centro unificado de Formación Profesional.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a convocar el concurso para la adjudicación del proyecto de construcción del centro unificado de Formación Profesional de Gernika-Lumo, y a asignar la cantidad necesaria para la financiación de dicho proyecto en los Presupuestos de 2010, de modo que el centro esté abierto para el curso escolar 2013-2014".

En Vitoria, a 16 de febrero de 2010

**Jesus M. Larrazabal Antia, portavoz del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna**

***

***Relativa a la construcción de un centro unificado de Formación Profesional en Gernika*** (Enmiendas) (09/11.02.01.0251)

La Mesa, en su reunión del día 16 de marzo de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, y ordena su remisión a la Comisión de Educación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco a tomar cuantas medidas considere oportunas para impulsar la construcción de un centro de Formación Profesional en Gernika-Lumo".

**ARALAR LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren jarduera sozioekonomikoen egokitzapenerako eta garapenerako egitaraua berraztertu dezala, gutxienez egin zen garaian eduki zuen parte-hartze maila bera bermatuz, eta eskualdearen garapen integrala aurreikusiko duen dokumentu berri bat onetsiz. Proposatzen diren jarduketekin batera, horiek betetzeko eta ebaluatzeko egutegia finkatuko da, erantzukizunak banatuko dira eta diru kopuru zehatzak aurreikusiko dira.

2. Aurreko puntuan ezarrita dagoena martxan jartzen den bitartean, eskualderako beharrezkoak diren azpiegiturak bermatuko dira, besteak beste, Bermeo eta Zornotza arteko Euskotreneko ibilbidearen bikoizketa, Gernikako Lanbide Heziketaren goi mailako ikastetxea eta eskualde osorako saneamendu-sarea".

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a crear un centro de Formación Profesional en Gernika que acompañe la reanimación económica de la zona, incluyendo la oferta formativa relacionada con esa reactivación económica y poniendo especial atención en aquellas enseñanzas que pudieran contribuir a la creación de

***Gernikan Lanbide Heziketako ikastetxe bateratua eraikitzeari buruz*** (Zuzenketak) (09/11.02.01.0251)

Mahaiak, 2010eko martxoaren 16ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Hezkuntza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

**EUSKAL LEGEBILTZAR TALDE POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio har ditzala egoki deritzen neurri guztiak Gernika-Lumon Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzea bultzatzeko".

**GRUPO PARLAMENTARIO ARALAR**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a revisar el Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y aprobar un nuevo documento que prevea el desarrollo integral de la comarca, garantizando como mínimo la participación que existió durante su elaboración. Junto con las actuaciones propuestas, se establecerá un calendario para su cumplimiento y evaluación, se acometerá el reparto de responsabilidades y se realizará una previsión detallada de las cantidades económicas.

2. Hasta la puesta en marcha de lo contemplado en el punto anterior, se garantizarán las infraestructuras necesarias para la comarca, entre otras, el desdoblamiento del trayecto de Euskotren entre Bermeo y Zornotza, el centro superior de Formación Profesional de Gernika y la red de saneamiento para toda la comarca".

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sor dezala Gernikan Lanbide Heziketako ikastetxe bat, zona horretako ekonomiaren berpiztearekin bat etorriko dena, eta ikastetxearen ikasketa-eskaintzan sar dezala ekonomiaren berpizte horrekin erlazionatutako prestakuntza, arreta berezia jarriz sendotzeko itxura duten

nuevos empleos en sectores emergentes y con perspectiva de consolidarse.

2. Asimismo, el Parlamento Vasco estima necesario que se finalice, lo antes posible, el trámite de incorporación al patrimonio de la Comunidad Autónoma de la finca cedida gratuitamente por el Ayuntamiento de Gernika para uso educativo".

***

sektore emergenteetan enplegu berriak sortzen lagun lezaketen ikasketei.

2. Era berean, Eusko Legebiltzarraren iritziz, beharrezkoa da lehenbailehen amai dadila Gernikako Udalak hezkuntza-erabilerarako doan utzitako finka Autonomia Erkidegoaren ondarean sartzeko tramitazioa".

***